

GRADUA: INDUSTRIA TEKNOLOGIEN
INGENIERITZA
GRADU AMAIERAKO LANA

***AUTOMOZIOKO BIRABARKI BATEN
PROZESU ORRIAREN GARAPENA***

Ikaslea: Arrizabalaga, Sagasta, Jon

Zuzendaria: Celaya, Egüen, Ainhoa

Ikasturtea: 2017-2018

Data: Bilbo, 2018, Uztaila, 23

LABURPENA

Lan hau ikaslearen Gradu Amaierako Lana bezala aurkezten da, zeinen bitartez “Industria Teknologiaren Ingeniaritza” Gradua amaitzea lortuko duen Euskal Herriko Unibertsitatean. Bertan auto baten birabarkiaren mekanizaziorako prozesu orria garatuko da, bere forjako geometriatik abiatuz erabilgarria izan baino pausu bat lehenagoko forma emateko egin beharreko mekanizazio eragiketak adieraziz.

Horretarako, piezaren aurreanalisi bate egingo da, geometria, materiala, eta egin diezazkieken operazioak aztertzeko. Honela, bakoitza aurrera eramateko beharko diren makineria, erremintak, eta parametroak zehazten dira, lortutako emaitzekin prozesu orria garatuz.

Hitz gakoak: birabarkia, prozesu-orria, mekanizazioa.

RESUMEN

El presente proyecto se presenta como el Trabajo de Fin de Grado del alumno mediante el cual conseguirá terminar los estudios de Grado en Ingeniería en Tecnología Industrial, en la Universidad del País Vasco. En él se desarrollará la hoja de proceso para el mecanizado de un cigüeñal de un automóvil, describiendo las operaciones de mecanizado que habrá que realizar partiendo de la geometría de forja de la pieza hasta llegar a la forma que debe tener a un paso previo a ser utilizable en el vehículo.

Para ello, se hará un análisis previo de la pieza, con el objetivo de estudiar su geometría, el material y las operaciones que le son posibles realizar. Así, se detallarán la maquinaria, herramientas y parámetros necesarios para llevar a cabo cada operación, desarrollando la hoja de procesos a partir de los resultados obtenidos.

Palabras clave: Cigüeñal, hoja de proceso, mecanizado.

ABSTRACT

This project is regarded as the Degree Ending Project of the student, which will enable him to complete his Degree in Industrial Technology Engineering in the University of the Basque Country. It will develop the process sheet for the machining of an automotive crankshaft, starting from the forge geometry of the element until it reaches the form it must have just one step before it can be used in the vehicle.

For that purpose, the component will be previously analysed, in order to study its geometry, material and the possible operations that can be done on it. Later, there will be indicated the machinery, tools and parameters which are necessary in the process, elaborating the process-sheet from the obtained results.

Key words: Crankshaft, process-sheet, machining.

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	6
2. Testuingurua.....	7
2.1. Automozio sektorea	7
2.2. Birabarkia	8
3. Lanaren helburuak eta irismena.....	10
4. Lanak dakartzan onurak.....	11
4.1. Onura teknikoak	
4.2. Onurak eremu akademikoan	
4.3. Onura ekonomikoak.	
5. Aukeren analisisa.....	12
6. Proposatutako irtenbidearen aukeraketa.....	14
6.1. Forja	14
6.2. Mekanizazioa	14
6.2.1. Teknologiak	15
6.2.2. Ebaketa parametroak	16
6.2.3. Erremintak	20
7. Lanaren garapena.....	23
7.1. Mekanizatuko den piezaren deskripzioa	23
7.1.1. Materiala	24
7.2. Erabiliko den makinaren analisisa	26
7.3. Prozesu orriaren garapena	28
7.3.1. Oinarrizko kontzeptuak	28
7.3.2. Orriaren gauzatzea	29
7.3.2.1. Erabilitako katalogoak	30
7.3.3. Mekanizatutako gainazalak eta kalkuluak	41
7.3.4. Aldez aurretik egindako kontsiderazioak	47
7.4. Atazen deskribapena	48
7.5. Gantt-en diagrama	51
8. Ikuspegi ekonomikoa.....	52
8.1. Aurrekontuaren deskripzioa	52
9. Ondorioak.....	56
10. Erreferentziak eta Bibliografia.....	57

IRUDIEN ZERRENDA

1. Irudia. Barne-errekuntzako motore baten osagaiak.....	8
2. Irudia. Birabarkiaren atalak.....	9
3. Irudia. Fundizioz (a), mekanizazioz (b) eta forjaz (c) egindako piezaren aleen orientazioa.....	14
4. Irudia. Torneaketa eragiketa.....	15
5. Irudia. Bost ardatzetako fresaketa makina.....	15
6. Irudia. Torneaketako ebaketa abiadura.....	16
7. Irudia. Fresaketako ebaketa abiadura.....	16
8. Irudia. Fresaketa parametroak.....	18
9. Irudia. Zimurtasunaren aldaketa aitzinapenaren eraginpean.....	19
10. Irudia. Zimurtasunaren aldaketa erradio puntaren eraginpean.....	19
11. Irudia. Torneaketa erreminta baten atalak.....	20
12. Irudia. Torneaketa eragiketetako angeluak.....	21
13. Irudia. Fresako erreminta baten atalak.....	22
14. Irudia. Forjako birabarkiaren eredua.....	23
15. Irudia. Birabarki baten fabrikaziorako produkzio lerroa.....	26
16. Irudia. M40 MillTurn makina.....	27
17. Irudia. Birabarkiaren 1. Gainazala.....	31
18. Irudia. CoroPlus ToolGuide programan sartu beharreko datuak.....	33
19. Irudia. 1. gainazalaren zilindraketarako programak eskeintzen dituen aukerak.....	33
20. Irudia. CoroPlus ToolGuiden “Ebaketa Datuak” leihatila.....	34
21. Irudia. CoroPlus ToolGuiden “Datu Ekonomikoak” leihatila.....	35
22. Irudia. Birabarkian mekanizatuko diren gainazalak.....	42
23. Irudia. Birabarkiaren besoetariko baten gainazalak.....	44
24. Irudia. Birabarki baten mekanizatuko fresa lehenengo posizioan.....	46
25. Irudia. Piezaren bira erdiko posizioa.....	46
26. Irudia. Gantt-en diagrama.....	51

TAULEN ZERRENDA

1 Taula. <i>Materiala, jarraitzen duen araua edo estandarra eta bere pisua</i>	24
2. Taula. <i>37CrS4 materialaren ezaugarri mekanikoak</i>	25
3. Taula. <i>37CrS4 materialaren pisuzko konposizio kimikoa</i>	25
4. Taula. <i>M40 MillTurn-en espezifikazio teknikoak</i>	28
5.Taula. <i>Profilen fresaketarako erremintak</i>	36
6. Taula. <i>CoroMill 300 erremintaren espezifikazioak</i>	37
7. Taula. <i>CoroMill 300-entzako plakatxoak</i>	38
8. Taula. <i>f_z eta a_c^{max} balioak CoroMill 300-entzat</i>	39
9. Taula. <i>V_c abiadurak materialaren ISO taldearen arabera</i>	40
10. Taula. <i>Barne-orduen gastuak</i>	53
11. Taula. <i>Inbertsioak</i>	53
12. Taula. <i>Gastuak</i>	54
13. Taula. <i>Kostu ez-zuzenak</i>	54
14. Taula. <i>Ezusteak</i>	55
15. Taula. <i>Amaierako balioa</i>	55

1. SARRERA

Lan hau ikaslearen Gradu Amaierako Lana bezala aurkezten da, zeinen bitartez “Industria Teknologiaren Ingeniaritza” Gradua amaitzea lortuko duen Euskal Herriko Unibertsitatean. Gradu honetako azkenengo ikasturtean, “Teknologia Mekanikoa” deituriko ikasgai bat dago zeinetan fabrikazio teknologiak ikasten diren, haien artean mekanizazio operazioak. Hala ere, ez da ikasten pieza konkretu bati egiten zaizkion mekanizazio operazio hauek nola adierazi, edo, beste era batean esanda, ez da ikasten nola garatzen den prozesu orri bat.

Hori dela eta, lan hau jorratzeko motibazio nagusia ikaslea prestatzea da ezagutza hauek bereganatuz, zeinek beranduago egingo dituen masterreko ikasketetan oso lagungarriak izango zaizkion.

Lanaren garapenerako, lehenik eta behin piezaren mekanizazioa burutzeko dauden aukera desberdinak aztertuko dira, bakoitzak eskeintzen dituen abantaila eta desabantailak identifikatuz eta bata bestearekin alderatuz. Azterketa honek fabrikaziorako aukera egokiena zein den erabakitzea ahalbidetuko digu. Era berean, garrantzitsua izango da nahi diren eragiketak aurrera eramateko zein makina eta erreminta erabiliko ditugun aukeratzea.

Jarraian, hasierako formatik abiatuz birabarkia amaierako formara iritsi dadin egin beharko zaizkion mekanizazio operazio guztiak azalduko dira, eragiketa bakoitzean erabilitako erremintak, parametroak, denborak, etab. adieraziz.

Azkenik, egindako proposamenaren bidez lortutako emaitzak aztertuko dira. Honekin proposatutako prozesua egokia den ala ez ondorioztatu nahi da eta honek suposatzen dituen onurak.

Esan beharra dago mekanizatuko den pieza JG AUTOMOTIVE enpresak CIGÜEÑALES SANZ enpresari saltzen dion forjako birabarkia dela. Esan genezake lan honetan CIGÜEÑALES SANZ enpresak egingo lukeen lana simulatuko dela, izan ere, enpresara iristen den forjako planotik abiatuta haiek proposatzen duten mekanizazio planora iristeko egingo diren eragiketak deskribatuko baitira.

2. TESTUINGURUA

2.1 AUTOMOZIO SEKTOREA

Henry Fordek XX. mendearen hasieran kateko ekoizpena ezarri zuenetik ibilgailuen produkzioan, automozio sektorea ekoizpen prozesuan parte hartzen duten pieza, elementu eta atalen bolumen izugarriengatik bereiztu da.

Gaur egun, edozein automobilen garapenean hainbat atalek hartzen dute parte. Hainbestekoak dira ibilgailuak dituen elementuak non jendeak ezagutzen dituen marka handiak ez diren (normalean) pieza hauen fabrikazioaz arduratzen, baizik eta autoen azkeneko muntaketaz soilik. Zati guzti hauen fabrikazioa, garapena eta distribuzioa beste enpresa batzuek egingo dute, zeintzuek enpresa handiaren hornitzaileak izango diren.

Izan ere, espezializazioa oso handia da, eta pieza asko ere hainbat etapa desberdinetan izaten dira fabrikatuak, etapa bakoitza enpresa desberdin batek egiten duelarik. Horrela, denen artean produkzio eta distribuzio sare konplexua osatzen dute.

Lana automozio sektoreak garrantzi handia duen ingurugiro ekonomiko batean aurkezten da. Euskal sektorea, sektore lehiakorren eta berritzaileen artekoa da, haren gestioa munduko aurreratuen artekoa izanik, efizientzia eta efikazia oso altuarekin.

300 enpresak osatzen dute euskal automozio sektorea, zeintzuek 18.000 milioi euro fakturatzeko duten eta 85.000 (40.000 Euskadin) pertsonari ematen dieten lan. Honi Gasteizko Daimler enpresak duen planta gehitu behar zaio, 135.000 ibilgailurekin urtean eta 3.000 langile¹. Enpresa aipagarrienak CIE Automotive edo Gestamp izango lirateke_eta euskal lurraldean kokatuta dauden enpresa multinazionalen artean, Michelin, Mercedes-Benz edo ZF.

Sektorearen osotasuna eremu murriztu batean balio kate zabal bat izateak ematen du. Balio kate hau altzairugileek, makina-erramienta fabrikatzaileek (80 enpresa), mekanizatzaileek (70 enpresa), inbestigazio zentruak edo zentru teknologikoak (11 zentru), unibertsitateak (4 Euskadin), kontsultorietan, ingenieritzek, eta abar luze batek osatzen dute.²

Gainera, euskal automozio sektoreak ibilgailuaren funtzio guztietan egiten du lan: Drivetrain, Powertrain, barneko elementuak, elementu estrukturalak eta karrozeria, kanpoko elementuak, elektronika eta hagnak.


Automozio sektoreaz gain, beste piezen mekanizazioa egiten duten enpresa ugari daude ere Euskadin. Hain zuzen ere, Espainiar estatuan gremio honetako enpresa gehien dituen autonomia erkidegoa da, hain zuzen ere, enpresen %30a hemen dago kokatua³. Bestalde, mekanizazio zentruak saltzen dituzten hainbat enpresa daude baita ere. Azken hauen artean, Danobat eta Etxe-zar ezagunen artekoak.

2.2. BIRABARKIA

Birabarkia automobil baten edo beste hainbat makinaren motoretan, biela-biradera mekanismoan oinarrituz mugimendu zuzena, mugimendu birakarian bihurtzen duen pieza da.

Barne konbustiozko motorren helburua energia kimikotik abiatuz, energia mekanikoa lortzea da. Automobilen kasuan, energia kimikoa erregaien errekuntzatik lortzen da, eta honek ardatz baten biraketa eragingo du, horrela mugimendu hau ibilgailuaren gurpiletara transmititzeko eta bere desplazamendua lortzeko.

Prozesu honetan guztian hiru piezak hartzen dute parte nagusiki: pistoiak, bielak, eta birabarkiak. Hain zuzen ere, erregaiaren konbustioak pistoietan sortutako indarrak bielen mugimendu zuzen alternatiboa eragiten du, eta birabarkiaren eginkizuna izango da mugimendu hau erroen laguntzarekin biraketa mugimendu uniformean bihurtzea. Horrek, motor hauetako pieza garrantzitsuenetariko batean bihurtzen du birabarkia.



1. Irudia. Barne-errekuntzako motore baten osagaiak.⁴


1. irudian ondo ikusten da hiru pieza hauen kokapena barne-errekuntzako motore batean, kasu honetan lau zilindroduna.

Sistema honetan birabarkia garrantzitsua izateaz gain, mekanikoki esfortzu ugari sufritzen dituen pieza da (makurdura, bihurridura...) eta beraz, esfortzu hauek jasateko prestaketa konplexua eskatzen du. Hori dela eta, egoki orekatu beharko dira eta pieza mardulak fabrikatu beharko dira, baina era berean ohikoa da barnetik hutsak izatea, bere pisuaren murrizpena lortzeko.

Birabarkiaren biraketatik distribuzio, koipeztatze, hozte eta pizte organuek lortzen dute haien mugimendua engranaien, uhalen eta kateen bitartez.

Birabarkiaren atalak 2. Irudian agertzen dira zehazki adierazita, eta hurrengoak dira:

- Euskarri nagusiak: Zenbat eta gehiago egon piezak orduan eta oreka tinkoagoa erakutsiko du.
- Ukondoak: Euskarri nagusiak eta erroak batzen ditu.
- Kontrapisuak: Ukondoen kontrako aldean kokaturik, piezaren orekan laguntzen dute.
- Erroak: Hauen kopuruak birabarkiak transmitituko duen potentzian du eragina, baina era berean, behar baino erro gehiegok piezaren beharrezko garestitzea eragingo dute.
- Inertzia bolantearen muturra: Pieza inertzia bolantearekin lotzeko balioko digu atal honek.



2. Irudia. Birabarkiaren atalak.⁵

Birabarkiaren eraketan erabilitako materialak mota askotakoak izan daitezke, batez ere bere tamainuan eta motorraren abiadura eta potentzia bezalako faktoreen arabera.

Horregatik, materialak beti bete beharko dituen baldintzak hurrengoak dira:

- Kolpeen aurreko erresistentzia altua, motorraren errektuntzak eragindako mugimendu bortitzak sor ditzakeen pitzadurak ekiditeko.
- Elastikotasun muga nahiko altua motorraren momentua transmititu eta esfortzuak jasan ahal izateko.
- Marruskadura koefiziente baxua, gehiegizko higadura ekiditeko.
- Neke-limite eta moteltze-koefiziente altuak, bibrazioen eragina murrizteko.

Ezaugarri batzuk kontraesangarriak dira, baina oreka bat bilatu beharko da haien artean, piezaren funtzionamendu baldintzen arabera.

3. LANAREN HELBURUAK ETA IRISMENA

Lan honen helburu nagusia automozioko pieza baten prozesu orria garatzea da. Prozesu orria fabrikazioaren industrian guztiz baliogarria den dokumentua da, batez ere piezaren mekanizazio eragiketak burutzeaz arduratzen diren langileentzat.

Helburu nagusi hau bete ahal izateko, lana helmen gutxiagoko helburu txikietan banatzen da.

Hasteko, automozioko pieza hori erabakitzea ezarriko dugu helburu bezala. Honekin batera, pieza horretan egingarriak diren mekanizazio operazioak aukeratzen saiatuko gara. Kasu honetan mekanizatuko den pieza birabarkia izatea erabakitzen da. Birabarkia, esan den bezala, automobil batean gehien sufritzen duten piezen artean dago, eta horregatik izango da garrantzitsua haren fabrikazio egokia. Hala ere, mekanizazio prozesu konplexua aurkezten du eta helburu hau betetzea erronka garrantzitsua izan daiteke.

Era berean, piezaren aurreformako prozesua zein izango den aukeratu nahi da. Pieza galdaketaz, forjaz edo beste prozesu batez aurrefabrikatua izan den arabera, egin beharreko mekanizazio eragiketak desberdinak izan daitezke, beraz aukera guztiak aztertu beharko dira onena zein den erabakitzeko.

Bestalde, piezaren mekanizazio eragiketa hauek egitea ahalbidetuko digun makinaria aukeratu behar da. Eragiketa desberdinek ezaugarri eta parametro desberdinak eskatzen dituzte eta denak jasaten dituen makina bat edo gehiago lortzea ezarriko da helburu moduan.

Azkenik, aipatutako mekanizazio eragiketak aplikatzeko aukera egokiena (ekonomikoki, denbora aldetik, eta beste faktore batzuei dagokionez) erabaki nahi da. Erabaki honetan eragina duten faktoreak erreminta, plakatxoa, ebaketa parametroak eta denborak dira.

Helburu guzti hauek betez gero, birabarkiaren prozesu orria garatzeko baliabideak eta gaitasuna edukiko da, lanaren helburu nagusia betez.

4. LANAK DAKARTZAN ONURAK

Gradu Amaierako Lan hau, ikasketa tekniko bat izanez, ekar ditzakeen onurak batez ere onura teknikoak eta didaktikoak dira. Forjazko birabarki baten mekanizazio prozesuaren ikasketa onuragarria izan daiteke bai sektore automobilistikoko profesionalentzat zein ingeneritza mekanikoa edo antzeko ikasketetako ikasleentzat.

4.1. ONURA TEKNIKOAK

Birabarki baten fabrikazio prozesua prozesurik garrantzitsuenetarikoa da automobileko piezei dagokionez, ibilgailuaren funtzionamenduan duen garrantzia eta, era berean, funtzionamendu honetan piezaren sufrimendua dela eta. Horregatik, elementu honen mekanizazio prozesua diseinatzea erronka handia da fabrikatzaileentzat.

Honela izanik, proiektu hau onuragarria izan daiteke auto baten birabarkiaren mekanizazioa diseinatu behar duen edozein ingeneri edo industriako beste profesionalentzat.

Era berean, aurreko atalean aipatu den bezala, mekanizazio eragiketak burutzeaz arduratzen den langilearentzat ere onuragarria izan daiteke lan hau. Izan ere, egin beharreko eragiketei buruz informazio baliagarri guztia adierazten zaio bertan era erraz eta ulergarri batean, piezaren mekanizazioa egokia izateko.

4.2. ONURAK EREMU AKADEMIKOAN

Lan honetan, pieza konkretu baten mekanizaziorako proposamen bat aurkezteaz gain, beste hainbat kontzeptu ere aztertzen dira. Hala nola, burutuko diren mekanizazio teknologiak, edo eragiketa hauentan erabili daitezkeen makinak eta erremintak. Era berean, prozesu orri bat zer den azaltzen da eta ondoren birabarkiaren prozesu orri zabal bat garatzen da.

Kontzeptu hauek guztiak benetan erabilgarriak izan daitezke ingeneritza mekanikoko edo antzeko ikasketetako ikasleentzat, gaiari buruz ikasteko eta haien formakuntza profesionala osatzeko asmoz, materia akademikoaz aparteko ezagutza teknikoak eskeintzen direlarik.

4.3. ONURA EKONOMIKOAK

Azkenik, ekonomiaren aldetik dokumentu honek dakartzan onurak ere aipagarriak dira. Prozesu orriaren bidez, aztertutako piezan egingo diren eragiketak optimizatu nahi dira, hau da, operazio egokienak aukeratu, horrela fabrikazioko produktibitatea handituz.

Beharrezkoak ez ditugun erremintak ezabatu litezke eta era berean denbora ez produktiboa (edo gutxienez murriztu). Azken finean, langileak egin beharreko guztia era zehatz batean aurkituko du definitua eta denbora gutxiago beharko du pieza fabrikatzeko. Beraz, produktibitate hobekuntzaren ondoriozko irabazi ekonomikoak lortu daitezke.

5. AUKEREN ANALISIA

Pieza zilindrikoen fabrikazioan, normalean, abiapuntua zilindro bloke bat izan ohi da. Bloke honetan beharrezkoak diren mekanizazio eragiketak egiten dira, azken itxurara iritsi arte.

Hala ere, hainbat kasutan piezaren hasierako forma bloke zilindriko bat izango balitz, bere mekanizazio operaketak asko trabatuko lirarteke, eta beraz beste aukera batzuk bilatzen dira. Kasu hauetan, piezari alde aurretiko forma bat ematen zaio ondoren mekanizazio operazioak errezagoak izan daitezen. Horrela gertatzen da gehienetan automoziorako birabarkiaren kasuan.

Aldez aurretiko forma hau, hainbat prozesuren bitartez egin daiteke, bakoitzak bere ezaugarriak dituelarik. Guk **galdaketa** eta **forja** aztertuko ditugu aukera moduan, birabarkiaren fabrikazioan gehien ematen diren prozesuak baitira.

Bi prozesuen arteko desberdintasunak azaldu aurretik, aipatu beharra dago lan hau egiteko aukeratu den birabarkia altzairuz egindakoa dela. Honela izanik, posiblea da bai galdaketaz zein forjaz aurretratatzea. Hau ez zen posiblea izango materiala burdina izango balitz, soilik galdaketaz tratatu baidaiteke.

Hasteko, bi prozesuak zertan datzaten azalduko da:

- **Galdaketaz** eginiko produktuak hurrengo prozesua jarraitzen dute: materiala urtu egiten da, ondoren molde batean isuriz eta hozten edo solidifikatzen utziz, nahi den forma hartu dezan. Behin materiala solidifikatu denean, moldea kentzen da, pieza urtua lortuz.
- Bestalde, **forja** presio altua erabiliz metal bati forma ematean datzan prozesua da. Presio altu hau bai mailu batekin kolpeatuz edo trokel baten laguntzarekin presionatuz lortu daiteke. Askotan, forjaketa errezteko materiala berotu egiten da, baina inoiz ez urtzera arte (beti egoera solidoan dago).

Ikusten denez, guztiz desberdinak dira bi prozesuak, baina hala ere biak dira nahiko erabiliak birabarkiaren fabrikazio prozesuetarako. Zein erabiliko den erabakitzeke, hainbat faktore eduki behar dira kontutan.

Hasteko, gainazal korapilatsua dituzten piezak hobeto fabrikatzen dira galdaketaz, materiala urtzean errez lor daitekeelako nahi den itxura. Era berean, eremu hutsak edo zuloak agertu behar badira piezan, prozesu honekin emaitza hobeak lortzen dira. Ordea, altzairuaren fusio puntu altuak zaildu egiten du bere galdaketa, eta gainera, materiala ez bada egoki kokatzen moldean, aire-hutsuneak sor daitezke piezan.

Bestalde, gainazal korapilotsudun edo zulodun piezak forjaz egin nahi badira, ondorengo mekanizazio etapan operazio gehiago gehitu beharko dira, eta hori arazo bat izan daiteke. Gainera, prozesu honek desalineazioa bezalako arriskua aurkeztu dezake, piezan nahi ez diren formak edo pitzadurak sor ditzakeenak. Hala ere, forjazko altzairua prozesu azkarra da eta bolumen handiko produkzioak kostu

baxuagoak aurkezten ditu. Gainera, homogeneotasun eta erresistentzia handiagoak eskeini ditzake.

Azpimarratu behar da, forjaketa beroan egiten denean, propietate mekaniko oso onak lortzen direla piezan eta nekearekiko lan egin behar duten piezentzako egokiagoa dela.


Hortaz, kostua eta kalitatea era egokian orekatuta dituen produktu bat sortzeko, garrantzitsua da aipatutako ezaugarri guztiak kontuan hartzea: produktuaren tamaina, formaren konplexutasuna, lote bakoitzeko produzituko den pieza kantitatea, eta ondoren egingo zaizkion mekanizazio operaketak, besteak beste.

6. PROPOSATUTAKO IRTENBIDEAREN AUKERAKETA

6.1. FORJA

Lan hau garatzeko proposatuko den birabarkiaren kasuan, aurreko atalean aipatu diren ezaugarriak eta arriskuak kontuan edukita, pieza **forjatik** eratorritakoa izango da.

Forjak estruktura harikorra osatzen du beste prozesuekin konparatuz, eta hori da aurkezten duen abantaila nagusia gure kasurako. Forjan tratatu ez den elementu batetan bere aleak eratorria izan den plakatxoaren aleen orientazio berbera izango dute, baina pieza berbera forjatua izaten bada, hauen orientazioak piezari erresistentzia handiagoa emango diote.



3. Irudia. Fundizioz (a), mekanizazioz (b) eta forjaz (c) egindako piezaren aleen orientazioa.⁶

Forjan, garrantzitsua da estanzioa beroan ala hotzean egiten den, eta baita lan egiten den tenperatura, nahi diren ezaugarriak lortu ahal izateko. Lan hau burutzen den inguruko birabarkiaren kasuan, estampa bidezko beroko forjaketa prozesua aplikatuko zaio.

Prozesu honetan prentsaketa prozesu bat egiten da gure material plastiko eta berotua deformatu dadin. Presioa motelki-motelki aplikatzen da, horrela metalaren fluxuari denbora utziz. Metodo honetan erabilitako prentsa gehienak hidraulikoak edo pneumatikoak dira.

6.2. MEKANIZAZIOA

Forjako pieza honetatik pieza erabilgarrira iritsi arte, hala ere, mekanizazio eragiketak egin beharko zaizkio birabarkiari. Mekanizazio eragiketa hauek hurrengo kapituluan zehaztuko dira, baina hori baino lehen, mekanizazioa zer den azaldu beharra dago.

Mekanizazioa lehengai batean era kontrolatuan egiten diren operazio multzoa da (torneaketa, fresaketa, zulaketa, etab.), soberako materiala harrotuz nahi edo behar den amaierako forma emateko helburuarekin.


Mekanizazio konbentzionala bi motakoa izan daiteke: alde batetik, **urradura** bidezko mekanizazioa, zeinen bitartez pieza higatzen den zati txikietan, materialaren partikulak askatuz. Bestalde, **txirbil-harroket**a bidezko mekanizazioa, zeinetan materiala erazten den erreminta baten laguntzaz, hondakina utziz. Azkeneko hau da ezagunena eta erabiliena, eta gure piezan ere egingo diren mekanizazio eragiketa guztiak mota honetakoak izango dira.

6.2.1. TEKNOLOGIAK

Mekanizazio teknologia erabilienak hurrengoak dira:


- **Torneaketa:** Lan-pieza biratzea metodo nagusitzat daukaten operazioei torneaketa-operazioa deitzen zaie. Operazio hauek tornua deituriko makinan eramaten dira aurrera.

Teknologia honen bidez, hiru mugimendu posibleak konbinatuz mekanizatu daitezkeen piezak era askotakoak izan daitezke diametroaren, luzeraren, mekanizazio operazioaren zailtasunaren eta beste hainbat faktoreren arabera.



4. Irudia. Torneaketa eragiketa.⁷

- **Fresaketa:** Erreminta biratzea metodo nagusitzat daukaten operazioei fresaketa-operazioak deitzen zaie. Biraketa mugimendu hau translazio mugimendu batekin konbinatzen da, erremintarena berarena edo piezarena. Operazio hauek fresaketa makina dute makina-erreminta nagusitzat. Normalean 3 ardatzdunak izan ohi dira, haien norabideetan translazioa ahalbidetuz. Hala ere, badira kasuak, eta gaur egun are gehiago, zeintzuetan mugimendu gehiago ahalbidetzen dituzten, normalean biraketa mugimenduak izango direnak. 5. Irudiko fresaketa makinaren kasua ardatz gehiagodun makina baten adibidea da, bost ardatzetakoa, zehazki.



5. Irudia. Bost ardatzetako fresaketa makina⁸.

- Zulaketa: Mekanizatuko den gainazalean zuloak egitearen prozesua. Zulaketa-eragiketak prentsa-zulagailuetan egiten dira, bai eta tornuetan edo errotetan ere.
- Artezketa: Prozesu hau urradura bidezko mekanizazio modukoa da, eta erreminta urratzaile baten bitartez (harria) piezaren forma edo gainazal akabera aldatzean datza.


6.2.2. EBAKETA PARAMETROAK

Eragiketa guzti hauetan, garrantzitsua da mekanizazio parametroak ezagutzea. Parametro hauek erabakitzeke hiru faktore nagusi eduki behar dira kontuan: landuko den materiala, erabiliko den makina eta erabiliko diren erremintak.


Hauen arabera, hurrengo parametroak zehaztuko dira:

Ebaketa abiadura (V_c): mekanizatuko den gainazalaren eta erremintaren arteko abiadura erlatiboa da. Normalean material gogorretan abiadura baxuak erabiltzen dira, eta bigunetan abiadura altuagoak. Orokorrean katalogoetan agertu ohi da.

Torneaketa eragiketan, 6. Irudian ikusi dezakegun bezala, ebaketa abiadura bi ardatz nagusien norabideko bi abiaduretan banatu dezakegu: alde batetik, aitzinapen abiadura, erreminta mugitzen dugun norabidean, eta bestalde abiadura efektiboa, kontaktu puntuaren oinarrizko higiduraren norabidean eta kontrako norantzan.



6. Irudia. Torneaketako ebaketa abiadura.⁹



7. Irudia. Fresaketako ebaketa abiadura.

Biraketa abiadura (N): Buruak ematen duen bira kopurua, eta hortaz, piezak (torneaketan) edo erremintak (fresaketan) ematen duen bira kopurua denbora tarte batean. Ez da ohikoa katalogoetan agertzea, baina bere kalkulua erraza da ebaketa abiadura ezagututa:

$$N = \frac{1000 * V_c}{\pi * D} \quad (1)$$

Non D piezaren diametroa den torneaketan, eta fresaren diametroa fresaketan (mm-tan adierazita), V_c operazioaren ebaketa abiadura (m/min-tan adierazita) eta N biraketa abiadura (bira/min-tan).

Aitzinapena (f, f_z): Denbora tarte batean erremintak aurreratzen duen distantzia mekanizazio gainazalean. Distantzia unitateetan adierazten da (mm). Normalean katalogoetatik atera daitekeen datua da.

$$f = \frac{V_f}{N} \quad (2)$$

Non V_f piezaren aitzinapen abiadura den (mm/min), eta N biraketa abiadura (bira/min).

Fresaketaren kasurako, kalkulua hertz bakoitzeko egiten da, hau da, hertzeko aitzinapena parametroa erabiltzen da. Bere kalkulua:


$$f_z = \frac{V_f}{N * z} \quad (3)$$

Non V_f (mm/min) eta N (bira/min) aurreko parametro berdinak diren, eta z fresaren hertz kopurua den.

Mekanizazio kalitate ona lortzeko, aitzinapenaren balioa punta erradioaren balioa baino txikiagoa izan behar da, baina aitzinapen txikiegiak okerrago egiten du lan, eta erreminta zein mekanizatutako gainazala kaltetu ditzake.

Iraganaldi sakonera (a_p) torneaketan: Mekanizazioaren iraganaldi bakoitzean erreminta piezan sartzen den distantzia adierazten du. Balio honek maximo bat aurkezten du, eta hau baino sakonera handiagoa lortu nahi bada mekanizazioan, hainbat iraganaldi errepikakor egin beharko dira gainazal berdinean. Bere balioa punta erradioa baino handiagoa izan beharko da, balio egokiena aitzinapena baino 6 eta 10 aldiz handiagoko tartean dagoelarik.

Iraganaldi sakonera (a_p) fresaketan; kasu honetan iraganaldi sakonera axiala (a_p) eta erradiala (a_e) definitzen dira. 8. Irudian adierazten dira bi kontzeptu hauek.



8. Irudia. Fresaketa parametroak.

Txirbil lodiera (a_c): Mekanizazio eragiketaren zehar askatzen diren txirbilaren lodiera adierazten du. Torneaketaren kasuan, parametro konstantea da, eta honela kalkulatzen da:

$$a_c = f * \sin(\kappa_r) \quad (4)$$

Non a_c txirbil lodiera den (mm), f aitzinapena (mm) eta κ_r erremintaren posizio angelua.¹

Fresaketa eragiketen kasuan, txirbil lodiera hau ez da konstantea, hortzaren ibilbidean zehar aldatu egiten baita. Izan ere, hortzaren posizio erradialaren menpekoa da, eta hau θ angeluarekin definitzen da. Fresaketako a_c ren kalkulua, beraz:

$$a_c = f_z * \sin(\theta) * \sin(\kappa_r) \quad (5)$$

Non a_c txirbil lodiera den (mm), f_z hortzeko aitzinapena (mm/hortz), θ hortzaren posizio erradialaren angelua eta κ_r erremintaren posizio angelua.

Zimurtasuna torneaketan (R_a): Gainazal erreale orok zimurtasun desberdinak aurkezten dituzte ezarri zaien mekanizazio teknologiaren arabera. Torneaketan, zimurtasun honen balioa erremintaren ezaugarrien eta ebaketa parametro batzuen araberakoa da. Bere kalkulurako lehenik eta behin zimurtasun maximoa kalkulatu behar da:

$$R_{max} = \frac{f^2}{8 * r_e} \quad (6)$$

Non R_{max} zimurtasun maximoa den, f aitzinapena den (mm), eta r_e erremintaren erradio punta (mm).

¹ κ_r "6.2.3. Erremintak" azpiatalean azalduko da.

Behin hau kalkulatu dugula, zimurtasunaren balioa kalkulatu dezakegu:


$$R_a = \frac{R_{max}}{4} \quad (7)$$

Non R_a zimurtasuna den eta R_{max} zimurtasun maximoa.


Ondoriozta dezakegu, beraz, erremintaren erradio punta konstante mantenduz aitzinapena handitzen badugu, gainazalaren zimurtasuna ere handitu egingo dela, zuzenki proportzionalak direlako.

Era berean, aitzinapena baldin bada konstante mantentzen duguna, erradio punta handiagoko erreminta bat erabiltzeak zimurtasuna txikitu egingo du, bi parametro hauek alderantziz proportzionalak baitira.

Azalpen hau irudikatuta erakusten da 9. Irudian eta 10. Irudian.



9. Irudia. Zimurtasunaren aldaketa aitzinapenaren eraginpean.



10. Irudia. Zimurtasunaren aldaketa erradio puntaren eraginpean.

Ebaketa potentzia torneaketan (P_C): Ebaketa potentzia ebaketa abiaduraren eta ebaketa indarraren araberako parametroa da. Ebaketa abiadura aurretik definitua geratu da, eta ebaketa indarrak (F_C) txirbil harroketa gauzatzeko aplikatu beharko den indarra adierazten du. Potentzia, azken finean, denbora unitateko egiten den ebaketa lana da.

Parametro garrantzitsua da prozesu orriaren garapenerako, eragiketa batzuk egiteko behar den potentzia minimoa kalkulatzeko balio baitu. Era berean, potentzia ezaguna bada, sakonera eta aitzinapen maximoak kalkulatzeko laguntzen digu.

Haren kalkulua:

$$P_C = \frac{V_C * F_C}{60} \quad (8)$$

Non V_C ebaketa abiadura (m/min), F_C ebaketa indarra (N) eta P_C ebaketa potentzia (W) diren.

Ebaketa potentzia fresaketan (P_c): Fresaketan potentziaren kalkulu sinplea ez da posible. Izan ere, prozesu hauetan txirbil sekzioa (s_c) eta txirbil lodiera (a_c) aldakorrak dira, eta ebaketa indarra F_c hauen funtzioa da. Hortaz, ebaketa indarra ere aldakorra izango da. Gainera, instante batean hortz bat baino gehiago egon daitezke ebakitzen, eta honek guztiak kalkulu sinplea eragozten du.

Hori dela eta, batez besteko balio bat lortzen da txirbil lodieratik abiatuz:

$$P_c = F_c(t) * V_c = S_c(t) * p_s(a_c) * V_c = a_c(t) * a_w * p_s(a_c(t)) * V_c \quad (9)$$

Kalkulu hau, hala ere, oso konplikatu da, eta hortaz kontsumitutako potentzia garbia kalkulatu da lan honetan:

$$P_c = \frac{a_p * a_e * V_f * k_c}{60 * 10^6 * \eta} \quad (10)$$


Non a_p eta a_e iraganaldi sakonera erradiala eta axiala diren hurrenez hurren (mm), V_f aitzinapen abiadura (mm/min), k_c ebaketa indar espezifikoa (N/mm²) eta η makinaren etekina den.

6.2.3. ERREMINTAK

TORNEAKETA ERREMINTAK

Torneaketa eragiketarako erabiltzen diren erremintak bi ataletan banatu ditzakegu: Alde batetik, **atal ebakitzailea** dugu, zein ebaketa egiteaz arduratuko den, eta bestetik **kirtena**, zeinen funtzioa atal ebakitzailea eustea den.

Atal ebakitzailean gainera, 11. Irudian agertzen den bezala, sorbatz nagusia, bigarren sorbatza, azpijan aurpegia, jaulkitze aurpegia eta erremintaren punta atalak desberdintzen dira. Ebaketa eragiketaz arduratzen den atala oinarrian sorbatz nagusia da.



11. Irudia. Torneaketa erreminta baten atalak.


Erreminta hauek gogorrak izatea, harikortasun handia erakustea, eta higadurarekiko erresistentzia altua edukitzea derrigorrezko baldintzak dira haien funtzionamendu egokirako.

Gainera, erreminta hauek fabrikatzen diren moduaren arabera, osokoak edo plakatxodunak izan daitezke. Osoko erremintak altzairuzko eta gorputz bakarreko barrak dira, eta hauen gorpuaren muturretan sorbatzak tailatzen zaizkie. Erremintak erabilpenaren ondorioz zorrozatasuna galtzen dute poliki-poliki baina mota honetako erremintak aurkezten duten abantaila nagusia birzorrotu daitezkeela da.

Bestalde, plakatxodun erremintak bi gorputzetan banatzen dira. Alde batetik aldi ugarian berrerabili daitekeen euskarria dugu, eta bertan plakatxo desberdinak kokatuko dira. Plakatxoak sorbatza duten elementua dira eta beraz, piezaren ebaketa gauzatuko dutenak, erabili ondoren bota egiten direlarik.

Azkenik, ebaketa eragiketan sorbatzen posizioarekin eta piezaren mugimenduarekin erlacionatutako hainbat angelu defini daitezke:


- Sorbatz nagusiaren posizio angelua (κ_r).
- Bigarren sorbatzaren posizio angelua (κ'_r).
- Punta erradioa (r_ϵ).
- Jaulkitze angelua (γ)
- Azpijan angelua (α)



12. Irudia. Torneaketa eragiketeko angeluak.

FRESAKETA ERREMINTAK

Erreminta hauek ere aurrekoen atal berdinetan banatzen dira: kirtena eta atal ebakitzalea. Hala ere, kasu honetan atal ebakitzaleak hortz ezberdinak izaten ditu, eta hortz bakoitzak ere sorbatz nagusia, bigarren sorbatza, azpijan-aurpegia, jaulkitze-aurpegia eta hortzaren punta.



13. Irudia. Fresako erreminta baten atalak.

Torneaketa teknologian bezala, kasu honetan ere sorbatz nagusiaren eta bigarrenaren posizio angeluak definitzen dira (κ_r eta κ'_r), bai eta azpijan angelua (α) eta jaulkitze angelua (γ) ere. Azken hau bitan bana daiteke fresaketan: jaulkitze angelu axiala (γ_a) eta erradiala (γ_r). Bien zeinuen konbinazioak sorbatzaren sendotasunean eta txirbilaren fluxuan eragina izan dezakete.


7. LANAREN GARAPENA

7.1. MEKANIZATUKO DEN PIEZAREN DESKRIPZIOA

Aurreko kapituluan aipatu den bezala, lan hau birabarkien mekanizazioaz arduratzen den enpresa batek egin ditzakeen operazioak deskribatzen saiatzen da. Zehazki, JG AUTOMOTIVE enpresak CIGÜEÑALES SANZ enpresari saltzen dion birabarki forjatutik abiatuko gara, eta enpresa honetan garatzen den pieza mekanizatura iristen saiatuko gara.

Landuko den birabarkia 6 zilindrodun birabarkia izango da, automobil konbentzional batean erabilia izan daitekeena. Forjatik ateratzen den piezaren luzera 830,5 mm-koa da, ondoren ordea, mekanizazioaren bitartez 828 mm-koa bihurtu beharko da.²

14. Irudian, forjako piezaren eredu erreal bat agertzen da.



14. Irudia. Forjako birabarkiaren eredu.

Birabarkien edozein plano tipikoetan hurrengoak aurkituko ditugu:

- Luzetarako bista bat zeinetan piezaren dimentsio gehienak agertuko diren.
- Besoen geometria ikusi ahal izateko beharrezkoak diren sekzio axialak.
- Erroen posizioa argi uzten duen bista axiala.
- Piezaren ulermen osorako beharrezkoak diren bestelako zehaztasunak.

Bai forjatik ateratzen den piezaren planoan zein mekanizazio planoan eranskinetan dator gehituta.

² Birabarkiaren forjako zein mekanizazioa egin ondorengo geometriak zehaztuta datoz 3. Eranskinean, beharrezko neurri guztiak adierazten direlarik.

7.1.1. MATERIALA

Pieza zein materialez osaturik dagoen jakiteak izugarrizko garrantzia du prozesuan zehar erabiliko diren erremintak eta parametroak erabakitzeko orduan. Pieza bakoitzak mekanizagarritasun (edo erderaz “maquinabilidad”) altua edo baxua izan dezake. Hau oso kontzeptu ezaguna eta erabilia da materialaren propietate moduan, eta pieza mekanizatzeko erreza edo zaila den adierazten digu. Mekanizagarritasuna definitzeko, hiru faktore nagusi definitu ohi dira:

- Materialaren klasifikazioa ikuspuntu metalurgiko/mekaniko batetik.
- Erabiliko den sorbatzaren geometria.
- Ebaketa erremintaren materiala.

Hala ere, kontzeptua berez material bakoitzak dituen beste propietate batzuen araberrako kontzeptua da baita ere. Propietate hauek, besteak beste, atxikitzea, gogordura, eroankortasun termikoa, gogortasuna eta urragarritasuna dira. Guztiek izango dute eragina, esan bezala, mekanizatzeko parametroak eta erremintak aukeratzeko. Esate baterako, materialaren atxikitzeko tendentzia altua bada, erreminta gogorragoak erabili beharko dira eta ebaketa abiadura altuagoa izan beharko da.

Automoziorako birabarkien kasuan askotan erabili ohi den materiala karbono-altzairua izan ohi da. Batzuetan ere, burdinurtu nodularrez fabrikatutako birabarkiak egiten dira, zeintzuek karbono-altzairuaren ezaugarri berdintsuak dituzten. Ordea, ohikoagoa da kromo-, molibdeno- edo vanadio-altzairu aleaziozko materialarekin fabrikatzea, piezaren eskakizun mekaniko-kimikoei hoberen erantzuten duten materialak baitira.

Horrelako material batez dago osatua lan honetarako aukeratutako birabarkia. Zehazki, piezaren forjako planoan adierazten zaigun bezala, 37CrS4 materialaz egin dago eta denominazio honetarako erabiltzen den araua DIN EN-10083 da. Gainera, planoan ere adierazten zaigu forjatik irtetzen den piezak 67,4 kg-ko pisua duela (pisu hau mekanizazio operazioen ondoren murriztua izango da). Datu hauek 1. Taulan agertzen dira adierazita.

37CrS4 + QT	DIN EN-10083-3	67,4 kg
MATERIALA	ESTANDARRA	PISUA (kg)

1 Taula. Materiala, jarraitzen duen araua edo estandarra eta bere pisua.

Material hau beroko forjaketa prozesua onartzen duen altzairua da, eta bere aplikazio nagusia ibilgailuetako elementuetan ematen da. Hala nola, automobiletako ardatzak, ardatzetako artekak, direkzio elementuen fabrikazioan, eta batez ere birabarkien fabrikazioan erabili ohi da.

Jarraian material honen ezaugarri mekaniko eta konposizio kimikoa adieraziko dira 2. eta 3. Tauletan.

37CrS4 materialaren ezaugarri mekanikoak			
Piezaren diametroa (mm)	d < 16	16 < d < 40	40 < d < 100
Isurpen tentsioa (MPa)	min. 750	min. 630	min. 510
Trakzioaren kontrako erresistentzia (Mpa)	950 - 1150	850 - 1000	750 - 900
Haustura luzapena A ₅ (%)	min. %11	min %13	min %14
Murrizketa azalera (%)	min %35	min %35	min %40
Gogortasuna (HBW)	max. 255		

2. Taula. 37CrS4 materialaren ezaugarri mekanikoak.


37CrS4 Konposizio Kimikoa	
Elementua	Pisuzko Konposizioa % (min/max)
C	0,34 / 0,41
Si	<= 0,4
Mn	0,6 / 0,9
P	<= 0,025
S	0,02 / 0,04
Cr	0,9 / 1,2

3. Taula. 37CrS4 materialaren pisuzko konposizio kimikoa.

7.2. ERABILIKO DEN MAKINAREN ANALISIA

Lan honetan hartu beharreko erabaki garrantzitsuenetariko bat, mekanizazio prozesu guztia zein makinatan aurrera eramango diren erabakitzea izan da. Horretarako, lehenik eta behin, birabarkiaren kasurako dauden aukera desberdinak aztertu behar dira.

Birabarkien fabrikazio prozesua normalean hainbat makinaz osaturiko instalazio batean egitea. Mekanizazio operazio bakoitza horretarako espezifikoki diseinaturik dagoen makinan egiten da, makina guztien artean transferentzia lerro bat osatuz piezaren mekanizazio totalaz okupatuko dena. 15. Irudian agertzen da birabarki baten mekanizaziorako prestatutako produkzio lerro baten eskema, 7 makinaz osatua.



15. Irudia. Birabarki baten fabrikaziorako produkzio lerroa.¹⁰

Hala ere, gaur egun horrelako produkzio lerro hauentzat alternatiba moduan sortu diren makinak existitzen dira, zeintzuek birabarki baten mekanizazio osoa egin dezaketen. Makina hauek, nahiz eta inbertsio handia suposatzen duten hasiera batean, epe luzera eraginkortasun handiagoa erakusten hasi dira birabarkien zein beste pieza batzuen produkzioan. Aukera egokiena, birabarki tiradaren araberakoa izango da.

<p>ISO 18</p> <p>Acero inoxidable</p> <p>Acero inoxidable</p>						0.1	0.2	0.3	0.4	0.5	0.6	0.7	0.8	0.9	1.0	1.1	1.2	1.3	1.4	1.5	1.6	1.7	1.8	1.9	2.0
<p>ISO 19</p> <p>Acero inoxidable</p> <p>Acero inoxidable</p>						0.1	0.2	0.3	0.4	0.5	0.6	0.7	0.8	0.9	1.0	1.1	1.2	1.3	1.4	1.5	1.6	1.7	1.8	1.9	2.0
<p>ISO 20</p> <p>Acero inoxidable</p> <p>Acero inoxidable</p>						0.1	0.2	0.3	0.4	0.5	0.6	0.7	0.8	0.9	1.0	1.1	1.2	1.3	1.4	1.5	1.6	1.7	1.8	1.9	2.0
<p>ISO 21</p> <p>Acero inoxidable</p> <p>Acero inoxidable</p>						0.1	0.2	0.3	0.4	0.5	0.6	0.7	0.8	0.9	1.0	1.1	1.2	1.3	1.4	1.5	1.6	1.7	1.8	1.9	2.0
<p>ISO 22</p> <p>Acero inoxidable</p> <p>Acero inoxidable</p>						0.1	0.2	0.3	0.4	0.5	0.6	0.7	0.8	0.9	1.0	1.1	1.2	1.3	1.4	1.5	1.6	1.7	1.8	1.9	2.0
<p>ISO 23</p> <p>Acero inoxidable</p> <p>Acero inoxidable</p>						0.1	0.2	0.3	0.4	0.5	0.6	0.7	0.8	0.9	1.0	1.1	1.2	1.3	1.4	1.5	1.6	1.7	1.8	1.9	2.0
<p>ISO 24</p> <p>Acero inoxidable</p> <p>Acero inoxidable</p>						0.1	0.2	0.3	0.4	0.5	0.6	0.7	0.8	0.9	1.0	1.1	1.2	1.3	1.4	1.5	1.6	1.7	1.8	1.9	2.0
<p>ISO 25</p> <p>Acero inoxidable</p> <p>Acero inoxidable</p>						0.1	0.2	0.3	0.4	0.5	0.6	0.7	0.8	0.9	1.0	1.1	1.2	1.3	1.4	1.5	1.6	1.7	1.8	1.9	2.0
<p>ISO 26</p> <p>Acero inoxidable</p> <p>Acero inoxidable</p>						0.1	0.2	0.3	0.4	0.5	0.6	0.7	0.8	0.9	1.0	1.1	1.2	1.3	1.4	1.5	1.6	1.7	1.8	1.9	2.0
<p>ISO 27</p> <p>Acero inoxidable</p> <p>Acero inoxidable</p>						0.1	0.2	0.3	0.4	0.5	0.6	0.7	0.8	0.9	1.0	1.1	1.2	1.3	1.4	1.5	1.6	1.7	1.8	1.9	2.0
<p>ISO 28</p> <p>Acero inoxidable</p> <p>Acero inoxidable</p>						0.1	0.2	0.3	0.4	0.5	0.6	0.7	0.8	0.9	1.0	1.1	1.2	1.3	1.4	1.5	1.6	1.7	1.8	1.9	2.0
<p>ISO 29</p> <p>Acero inoxidable</p> <p>Acero inoxidable</p>						0.1	0.2	0.3	0.4	0.5	0.6	0.7	0.8	0.9	1.0	1.1	1.2	1.3	1.4	1.5	1.6	1.7	1.8	1.9	2.0
<p>ISO 30</p> <p>Acero inoxidable</p> <p>Acero inoxidable</p>						0.1	0.2	0.3	0.4	0.5	0.6	0.7	0.8	0.9	1.0	1.1	1.2	1.3	1.4	1.5	1.6	1.7	1.8	1.9	2.0
<p>ISO 31</p> <p>Acero inoxidable</p> <p>Acero inoxidable</p>						0.1	0.2	0.3	0.4	0.5	0.6	0.7	0.8	0.9	1.0	1.1	1.2	1.3	1.4	1.5	1.6	1.7	1.8	1.9	2.0
<p>ISO 32</p> <p>Acero inoxidable</p> <p>Acero inoxidable</p>						0.1	0.2	0.3	0.4	0.5	0.6	0.7	0.8	0.9	1.0	1.1	1.2	1.3	1.4	1.5	1.6	1.7	1.8	1.9	2.0
<p>ISO 33</p> <p>Acero inoxidable</p> <p>Acero inoxidable</p>						0.1	0.2	0.3	0.4	0.5	0.6	0.7	0.8	0.9	1.0	1.1	1.2	1.3	1.4	1.5	1.6	1.7	1.8	1.9	2.0
<p>ISO 34</p> <p>Acero inoxidable</p> <p>Acero inoxidable</p>						0.1	0.2	0.3	0.4	0.5	0.6	0.7	0.8	0.9	1.0	1.1	1.2	1.3	1.4	1.5	1.6	1.7	1.8	1.9	2.0
<p>ISO 35</p> <p>Acero inoxidable</p> <p>Acero inoxidable</p>						0.1	0.2	0.3	0.4	0.5	0.6	0.7	0.8	0.9	1.0	1.1	1.2	1.3	1.4	1.5	1.6	1.7	1.8	1.9	2.0
<p>ISO 36</p> <p>Acero inoxidable</p> <p>Acero inoxidable</p>						0.1	0.2	0.3	0.4	0.5	0.6	0.7	0.8	0.9	1.0	1.1	1.2	1.3	1.4	1.5	1.6	1.7	1.8	1.9	2.0
<p>ISO 37</p> <p>Acero inoxidable</p> <p>Acero inoxidable</p>						0.1	0.2	0.3	0.4	0.5	0.6	0.7	0.8	0.9	1.0	1.1	1.2	1.3	1.4	1.5	1.6	1.7	1.8	1.9	2.0
<p>ISO 38</p> <p>Acero inoxidable</p> <p>Acero inoxidable</p>						0.1	0.2	0.3	0.4	0.5	0.6	0.7	0.8	0.9	1.0	1.1	1.2	1.3	1.4	1.5	1.6	1.7	1.8	1.9	2.0
<p>ISO 39</p> <p>Acero inoxidable</p> <p>Acero inoxidable</p>						0.1	0.2	0.3	0.4	0.5	0.6	0.7	0.8	0.9	1.0	1.1	1.2	1.3	1.4	1.5	1.6	1.7	1.8	1.9	2.0
<p>ISO 40</p> <p>Acero inoxidable</p> <p>Acero inoxidable</p>						0.1	0.2	0.3	0.4	0.5	0.6	0.7	0.8	0.9	1.0	1.1	1.2	1.3	1.4	1.5	1.6	1.7	1.8	1.9	2.0
<p>ISO 41</p> <p>Acero inoxidable</p> <p>Acero inoxidable</p>						0.1	0.2	0.3	0.4	0.5	0.6	0.7	0.8	0.9	1.0	1.1	1.2	1.3	1.4	1.5	1.6	1.7	1.8	1.9	2.0
<p>ISO 42</p> <p>Acero inoxidable</p> <p>Acero inoxidable</p>						0.1	0.2	0.3	0.4	0.5	0.6	0.7	0.8	0.9	1.0	1.1	1.2	1.3	1.4	1.5	1.6	1.7	1.8	1.9	2.0
<p>ISO 43</p> <p>Acero inoxidable</p> <p>Acero inoxidable</p>						0.1	0.2	0.3	0.4	0.5	0.6	0.7	0.8	0.9	1.0	1.1	1.2	1.3	1.4	1.5	1.6	1.7	1.8	1.9	2.0
<p>ISO 44</p> <p>Acero inoxidable</p> <p>Acero inoxidable</p>						0.1	0.2	0.3	0.4	0.5	0.6	0.7	0.8	0.9	1.0	1.1	1.2	1.3	1.4	1.5	1.6	1.7	1.8	1.9	2.0
<p>ISO 45</p> <p>Acero inoxidable</p> <p>Acero inoxidable</p>						0.1	0.2	0.3	0.4	0.5	0.6	0.7	0.8	0.9	1.0	1.1	1.2	1.3	1.4	1.5	1.6	1.7	1.8	1.9	2.0
<p>ISO 46</p> <p>Acero inoxidable</p> <p>Acero inoxidable</p>						0.1	0.2	0.3	0.4	0.5	0.6	0.7	0.8	0.9	1.0	1.1	1.2	1.3	1.4	1.5	1.6	1.7	1.8	1.9	2.0
<p>ISO 47</p> <p>Acero inoxidable</p> <p>Acero inoxidable</p>						0.1	0.2	0.3	0.4	0.5	0.6	0.7	0.8	0.9	1.0	1.1	1.2	1.3	1.4	1.5	1.6	1.7	1.8	1.9	2.0
<p>ISO 48</p> <p>Acero inoxidable</p> <p>Acero inoxidable</p>						0.1	0.2	0.3	0.4	0.5	0.6	0.7	0.8	0.9	1.0	1.1	1.2	1.3	1.4	1.5	1.6	1.7	1.8	1.9	2.0
<p>ISO 49</p> <p>Acero inoxidable</p> <p>Acero inoxidable</p>						0.1	0.2	0.3	0.4	0.5	0.6	0.7	0.8	0.9	1.0	1.1	1.2	1.3	1.4	1.5	1.6	1.7	1.8	1.9	2.0
<p>ISO 50</p> <p>Acero inoxidable</p> <p>Acero inoxidable</p>						0.1	0.2	0.3	0.4	0.5	0.6	0.7	0.8	0.9	1.0	1.1	1.2	1.3	1.4	1.5	1.6	1.7	1.8	1.9	2.0
<p>ISO 51</p> <p>Acero inoxidable</p> <p>Acero inoxidable</p>						0.1	0.2	0.3	0.4	0.5	0.6	0.7	0.8	0.9	1.0	1.1	1.2	1.3	1.4	1.5	1.6	1.7	1.8	1.9	2.0</

7.3.3. MEKANIZATUTAKO GAINAZALAK ETA KALKULUAK

Prozesu orri osoa garatzeko orduan erabaki asko hartu dira eta prozesu luzea izan da. Hori dela eta, erreminta eta parametro guztien aukeraketarako eman diren pausu guztiak azaltzea beharrezkoa ez dela, eta prozesu orriarekin berarekin azalduta geratzen direla onartzen da. Hala ere, atal honetan aipatu egingo dira forjako birabarki batean mekanizatzen diren gainazalak, eta bakoitzean egindako kalkulu adierazgarrienak).

Gainera, mekanizazio operazio batzuk prozesu berezia jasan dute edota kontsiderazio bereziak hartu dira gauzatu ahal izateko, eta horiek azaltzea ezinbestekotzat hartzen da.



22. Irudia. Birabarkian mekanizatuko diren gainazalak.

1. Eragiketa. Muturretako aurpegia

Birabarkian egingo diren lehen eragiketak izango dira, forjako planotik mekanizazio planora pieza murrizten den 3 zm-ak kentzeko. Hasiera batean aurpegiketa eragiketa bat dirudi, baina aurretik aipatu den bezala ez da posible.

Izan ere, pieza honetan torneaketa eragiketak egiteko, birabarkia gainazal hauetan forjatik iada mekanizatuta datozen zuloetatik eusten da eta biraketa mugimendua ematen zaio. Egoera honetan ezinezkoa da muturretako aurpegiak torneaketaz mekanizatzea, eta beraz fresaketaz mekanizatzea erabakitzen da. Jarraian egin behar izan diren kalkuluak azalduko dira.

Behin katalogoaren bitartez gure erreminta eta plakatxoa aukeratu ditugula (gure kasuan **CoroMill 245 R245-160 Q40-12M** eta **R245-12 T3 M-PM**, hurrenez hurren), parametroen kalkuluari ekingo diogu.

Lehenik eta behin hortzeko aitzinapena (f_z) zehaztu behar da. Parametro hau katalogoaren gomendioa jarraituz aukeratzen dugu, kasu honetan $f_z = 0,24 \text{ mm/z}$.

Behin hau jakinda a_c^{max} txirbil lodiera maximoa definituko dugu, zein 4323. ekuazioa jarraituz kalkulatu dugun, $\theta=90^\circ$ kontsideratuz eta $\kappa_r=45^\circ$ dela jakinik. Hortaz, $a_c^{max} = 0,1697 \text{ mm}$.

Taulek ematen dituzten balio gertuenak $a_c^{max} = 0,1$ edo $0,2$ -rako dira, beraz gure balioa interpolatuz lortuko da:

$$\frac{a_c^{max}_2 - a_c^{max}_1}{V_{c2} - V_{c1}} = \frac{a_c^{max}_2 - 0,1697}{V_{c2} - V_c} \quad (11)$$

Ekuazio honetatik V_c kalkulaten da, eta bere balioa **176,52 m/min** da. Hau jakinda, N biraketa abiadura ere kalkulatu dezakegu:

$$N = \frac{1000 * V_c}{\pi * D_c} = \mathbf{351,17 \text{ bira/minutu}}$$

Non D_c fresaren kanpo diametroa den (mm).

Prozesu orria osatzeko P_c potentzia eta t denbora geratzen zaizkigu bakarrik. P_c lehen aipatutako formularen bitartez kalkulaten dugu:

$$P_c = \frac{a_p * a_e * V_f * k_c}{60 * 10^6 * \eta} \quad (12)$$

Non parametroak 6.2.2. Atalean azaldu diren berdinak diren.¹¹

Ekuazio honetatik, V_f eta k_c dira ezezagunak. V_f -ren kalkulurako hurrengo formula jarraituko dugu:

$$V_f = f_z * z * N \quad (13)$$

Non V_f aitzinapen abiadura den (mm/min), f_z hortzeko aitzinapena (mm/z), z hortz kopurua, eta N fresaren biraketa abiadura (b/min).

Parametro guztiak ezagunak izanik, gure kasurako ($\varnothing 60$ ko aurpegirako): **$V_f = 842.8 \text{ mm/min}$.**

Bestalde, k_c -ren kalkulua:

$$k_c = k_{c1} * h_m^{-m_c} \quad (14)$$

Non k_{c1} ebaketa indar espezifikoa den (N/mm^2), m_c ISO arauaren arabeko kte. bat, eta h_m txirbilaren batz besteko lodiera (mm).

k_{c1} eta m_c tauletatik atera ditzakegu, baina h_m kalkulatu beharko dugu, hurrengo formularen arabera:

$$h_m = \frac{\sin(\kappa_r) * 180 * a_e * f_z}{\pi * D_c * \arcsin\left(\frac{a_e}{D_c}\right)} \quad (15)$$

Non parametro guztiak ezagunak diren eta aurretik definituak izan diren.

¹¹ Erabilitako makinaren espezifikazio orrian ez da etekina adierazten, beraz %90ekoa suposatuko da kalkuluetarako.

Horrela, gure parametroak:

- $h_m = 0,16556 \text{ mm}$
- $k_c = 3135,39 \text{ N/mm}^2$
- $P_c = 4,4 \text{ kW}$

Azkenik, t denbora kalkulatu da, hurrengo formula jarraituz:

$$t = \text{erremintak egindako distantzia} / V_f$$

Horrela, $\varnothing 60$ ko aurpegiarentzat, $t = 0,26 \text{ min.}$

2. Eragiketa. Sudurra + lehenengo euskarri nagusia

Gainazal hauek kontorneaketa eragiketa arrunta behar dute. Bakoitzak behar duen mekanizatutako sakonera ezberdina denez eta CoroPlus ToolGuide programan sartu ahal izateko, lau zilindraketa eragiketa ezberdinetan banatu dira prozesu orrian, baina denen artean kontorneaketa eragiketa bakarra osatzen dute. Horregatik, erreminta eta plakatxo berbera erabiltzen da denerako.

Gainazal honetan V_f , f , t eta a_p parametroak web-orriko gidaren bitartez lortu dira. N eta P , ordea, kalkulatu egin dira, (1) eta (8) ekuazioen arabera.

3. Eragiketa. Bolantearen aldeko muturra

Aurreko kasuan bezala, gainazal hauen mekanizazioa prozesu orrian hainbat zilindraketa eragiketetan banatu da, baina denen artean kontorneaketa eragiketa osatzen dute.

Azaldu behar da, hala ere, gainazal hau mekanizatzean erronka bat sortu zaigula. Hain zuzen ere, 2108 eta 2109 eragiketetan.¹² Arazoa bertan dagoen 7^oko gainazal zorrotza izan da. Angelu hain zorrotza izatean, ez zegoen erremintarik gainazal guztia mekanizatzen ahalbidetuko zigunik (90^oko eskuaira alde batean eta 83^okoa bestean). Hori dela eta, bi eragiketetan banatu dugu: lehenengo gainazal erdia mekanizatzen da 90^oko eskuaira emanaz, eta ondoren erremintaz aldatu behar dugu 83^o ko kontorneaketa hori egiteko.

Parametroen kalkulua 2. Eragiketetan bezala egin da.

¹² Eragiketa hauek 5. Eranskinean datoz definituta, hau da, prozesu orrian.

4. Eragiketa. Euskarri nagusiak

Euskarri nagusien ardatzak, erroen kasuan ez bezala, bat egiten du piezaren biraketa ardatzarekin, eta beraz posiblea da torneaketaz mekanizatzea. Hala ere, euskarrien estutasunak eta alboetan besoak edukitzeak galarazi egiten zuen era horretan mekanizatuak izatea, eta beraz artekaketaz mekanizatzea erabakitzen da. Horrela, bi pasada egiten zaizkio, lehenengoan izkinak eta erdiko zati estu bat mekanizatuz, eta azkenik mekanizatu gabe geratzen diren bi atalak mekanizatuz.

Kasu honetan, P_c potentziaren kalkulua aipagarria da. Izan ere, (8) ekuazioa jarraituz kalkulatu da, non F_c -ren kalkulua:

$$F_c = p_s * f * a_p \quad (16)$$

Non p_s ebaketa energia espezifikoa (N/mm^2) den, f aitzinapena, eta a_p kasu honetan artekaren zabalera den (mm).

Parametro hauek ezagunak dira, p_s izan ezik, zeinen kalkulua:


$$p_s = 2000 * a_c^{-0,25} \quad (17)$$

Non a_c (mm) txirbil lodiera den, kasu honetan f aitzinapenaren balio berbera hartuko dugularik.

Orain bai, V_c ezaguna denez, P_c -ren kalkulua egin genezake.

5. Eragiketa. Birabarkiaren besoen aurpegiak

Piezaren atal hauek ere mekanizazio prozesu berezia behar dute eta horregatik aipatzekoa da. Batez ere, erroen alderantz begiratzen duten aurpegiak, 22. Irudiko 2 eta 3 gainazalak, hain zuzen.



23. Irudia. Birabarkiaren beso baten gainazalak.

1 eta 4 gainazalen mekanizazioa aurpegiketa normal bat bezala egingo da. Egia da alde batetik bestetik baino diametro handiagoa aurkezten duela, baina hori ez da zertan arazoa izan behar. Besterik gabe, kontuan izan behar da hasieran erremintak soilik alde batekin kontaktatuko duela, eta beraz mekanizatu etendua izango dela. Torneaketa erreminta piezaren ardatzera gerturatzen den eanean, gero eta gainazal azalera handiagoa mekanizatuko du, azalaren mekanizazio osoa lortu arte.

Benetako arazoa 2 eta 3 gainazalen mekanizazioarekin dator. Aurreko kasuan gertatzen zen bezala, erroen ardatzak ez dute bat egiten piezaren biraketa ardatzarekin, eta zailtasun berdina agertzen da besoen barneko aurpegi hauek mekanizatzeko.

Aurretik azaldu den bezala, erroak mekanizatzeko fresak gora-beherako mugimendu bat aurkeztu behar du eragiketa era egokian egin dadin, eta gauza berbera gertatzen da erro hauekin kontaktuan dauden besoen aurpegiekin. Desberdintasun bakarra, gainazal hauetan torneaketa eragiketa aplikatuko dela da.

Eragiketa honetan ere ardatzen mugimendu berezi hau zenbakizko kontrolaren bidez programatzen da. Bestalde, torneaketa erremintaren aukeraketa eta eragiketaren parametroen kalkulua egiterakoan CoroPlus ToolGuide-en makinaren abiadura maximoa $N_{max} = 200$ b/min ipiniko da, piezak abiadura azkarregian ezin baitu biratu, eragiketa berezi hau egin ahal izateko.

Aipatu beharra dago kontrapisuak ez dutela beti mekanizaziorik jasotzen. Askotan, forjako geometria berbera mantentzen dute, haien funtzio bakarra biratzen duen masa handitzea baita, kuxineteek jasaten dituzten esfortzuak murrizteko, eta horretarako mekanizazioa ez da beharrezkoa. Hala ere, gure kasuan forjako planotik mekanizazioko planora neurrien desberdintasunak esaten digu mekanizatuak izan behar direla.


6. Eragiketa. Birabarkiaren erroak

Atal hauentzako azalpen zabalagoa egingo da, eragiketa konplexua aplikatzen baitzaie eta prozesu orria garatzea erronka handia izan baita.

Prozesu guztian zehar piezaren biraketa ardatzak euskarri nagusien eta muturren ardatzarekin egiten du bat, baina ardatz honek ez du bat egiten erroen ardatzekin. Hortaz, pieza biraraztean erroek mugimendu zirkularra jarraitzen dute. Horretan oinarritzen da birabarkiaren funtzioa automobilaren funtzionamenduan, baina mekanizatzeko eragiketa erabakitzeko orduan erronka handiengan bihurtzen da. Hau ikusita, erabaki da erroetan torneaketa eragiketa bat egitea guztiz bideraezina zela eta fresaketa teknologia aplikatuko zaiola. Hala ere, fresaketa teknologia ere berezia izan beharko da, erroaren gainazalaren osotasuna mekanizatu ahal izateko.


Gauzak horrela, hurrengo prozesua jarraituko dela erabakitzen da: Pieza abiadura oso motel batean biraraziko da ardatz nagusiarekiko, eta orduan zenbakizko kontrolari esker fresa gora eta behera mugiaraztea eta erroaren mugimendu zirkularra jarraitzea lortu dezakegu. Prozesu hau ulergarriagoa suertatu daiteke 24. Eta 25. Irudiak begiratuta.

Fresa 1. posizioan



24. Irudia. Birabarki baten mekanizatuko fresa lehenengo posizioan.¹²

Fresa bigarren posizioan



25. Irudia. Piezaren bira erdiko posizioa.

Behin hau argi dagoela, orain mekanizaziorako erremintak eta parametroak 1. Eragiketarako azaldu den prozesu berdina jarraituz kalkulatu dira.

Desberdintasun bakarra t denboraren kalkuluan dago. Erroek azaldu den mugimendu berezi hau jarraitzen dutenez, ibilitako distantzia sortzen duten zirkunferentziaren perimetroa izango da. Horrela, erroen distantzia ardatzarekiko $r=64$ mm izanik:

$$dist = 2\pi r = 402.12 \text{ mm}$$

Hau jakinda, eragiketa burutzeko behar den denbora:

$$t = \frac{dist}{V_f} = \mathbf{0.476 \text{ min}}$$

7.3.4. ALDEZ AURRETIK EGINDAKO KONTSIDERAZIOAK

Prozesu orriaren garapenean, ezezagunak edo haien artean kontraesangarriak ziren balio eta neurri batzuk agertu izan dira. Balio hauek estimatu egin behar dira, edo haiei buruzko eta zentzuzkoak diren kontsiderazio batzuk onartu. Jarraian azalduko dira zeintzuk izan diren balio hauek.

- Eragiketa guztietarako, gainazalaren zimurtasuna $4\mu\text{m}$ -koa onartu da, forjako piezaren tolerantziak begiratu.
- Sandvik Coromanten web orriko CoroPlus ToolGuide erabiltzean, eragiketa guztietan “Máquina Universal de alto rendimiento” aukeratu da makina moduan, gure M40 MillTurn-arekin antzekotasun gehien aurkezten zituen aukera baitzen.

7.4. ATAZEN DESKRIBAPENA

Atal honetan Gradu Amaierako Lan honen garapenean eman diren pausuak eta pausu bakoitzak ekarri dituen erronkak azalduko dira.

GrAL hau martxoan aurkezten zaio ikasleari, “automozioko pieza baten prozesu orriaren garapena” izenburupean, eta momentu horretan hasten da ikaslea lantzen. Horretarako, prozesu guztia hainbat etapatan edo bete beharreko atazetan banatu da.

Lehenengo ataza: Automozioko pieza erabaki. Ezer egiten hasi baino lehen, mekanizatuko den automozioko pieza zein izango den erabaki beharko dugu. Helburu hau lortzeko, egiteko txikiagoetan banatu dugu ataza:

- Lehenik eta behin pieza ezberdinak aztertu behar izan dira. Automobil batean mekanizatzen diren hainbat elementu daude, eta haiei buruzko informazio baliagarria bildu izan da bakoitzak eskaintzen dituen aukerak aztertuz.
- Behin azterketa egin dugunean, aukera guztien artean interesgarrienak diren piezak aukeratzen dira. Aurre-aukeraketa honetan bost elementu bereizi dira: martxa aldaketa kutzako ardatza, birabarkia, enbragea, direkzioko pinoia eta sarrerako tximeleta.
- Ondoren, bost pieza hauen mekanizazioari buruzko informazio erabilgarria bilatu behar da, batez ere plano egoki bat aurkitzearen helburuarekin. Ataza hau pieza batzuen kasuan ez da posiblea izan, haien plano baliagarri bat ez baita lortu.
- Horrela, lortutako planoekin eta batutako informazioarekin irakasleari mekanizatu nahi den piezaren proposamena egin behar zaio, haren onspena lortzeko.

Hau eginda, ataza hau lortutzat hartzen da: birabarkia aukeratu da prozesu orria garatzeko.

Lehenengo ataza lortzeko erabilitako baliabideak: Bulegoko materiala (ordenagailu bat, inpresora), Arias-Pazen automobilen eskuliburua.

Lehenengo ataza lortzeko erabilitako denbora: 14 egun.

Bigarren ataza: Aurreformako prozesua aukeratu. Automoziorako birabarki bat mekanizatzeke orduan, beste ardatzezko pieza batzuetan ez bezala, hasierako geometria bloke bat izatea ez da oso ohikoa, eta normalean aurreforma ematen zaio prozesu ezberdinen bidez. Gure kasurako aurreforma hau zein den aukeratu behar da.

- Hasteko edozein piezari aurreforma emateko dauden prozesu ezberdinak ikasi behar dira, erabakia hartu ahal izateko oinarrizko jakintza batzuk bereganatu nahian.

- Ondoren, birabarki bati aurreforma emateko dauden prozesu ezberdinak aztertzen dira. Birabarki bat bai galdaketaz zein forjaz fabrikatu daiteke, eta bakoitzak dakartzan onurak eta kalteak analizatu behar dira.
- Behin hau eginda dugula, gai gara erabaki bat hartzeko piezan aplikatuko dugun aurreforma prozesuari buruz. Gure kasuan, aipatu beharra dago ataza honen igarotzean zehar birabarki konkretu baten mekanizazio planoan aurkitu zela, bere forjako geometria argitzen zuen beste plano batekin batera. Hortaz, erabakia hartuta zegoen.

Behin irakasleak erabakia egokitzen hartu duela, ataza lortu da.

Bigarren ataza lortzeko erabilitako baliabideak: Bulegoko materiala (ordenagailu bat, inpresora).

Bigarren ataza lortzeko erabilitako denbora: 8 egun.

Hirugarren ataza: Mekanizazio eragiketen azterketa. Iada pieza zein den, ze nolako aurreforma izango duen eta haren plano eskura dugula, gai izango gara birabarkian egingo diren mekanizazio eragiketa guztiak aztertzeko eta definitzeko.

- Horretarako, lehenik eta behin aipatu behar da ikasleak ez duela “Teknologia Mekanikoa” ikasgaia egin lehenengo lauhilekoan, eta beraz ikasgai honetako ezagutza teorikoak bereganatzea beharrezkoa dela aurrera jo baino lehen.
- Era berean, iadanik bilduta genuen informazioa osatuko duen birabarkiaren eta haren fabrikazioaren inguruko informazio zehatza eskuratu behar dugu. Zelan mekanizatu ohi den, zein beste aukera dauzkagun, etab. Pausu hau aurrekoarekin batera emango da denboran.
- Behin jakintza guztiak eskuratu direnean mekanizazio prozesuei buruz eta birabarkiari buruz, gure piezan egingo diren eragiketa guztiak definitu ahalko dira.

Hirugarren ataza lortzeko erabilitako baliabideak: Bulegoko materiala (ordenagailua), Sandvik Coromant-en web orriko CoroPlus ToolGuide gida, Sandvik Coromant-en erreminten katalogo fisikoa, “Teknologia Mekanikoa” ikasgaia.

Hirugarren ataza lortzeko erabilitako denbora: 18 egun.

Laugarren ataza: Makina aurkitu. Proposatutako mekanizazio eragiketa horiek zein makinatan egingo diren erabakitzea ataza garrantzitsua da prozesu orria garatzen hasi baino lehen, eragiketa bakoitzeko parametroak baldintzatuko baititu.

Horregatik, aukeratu dugun pieza mekanizatzeko gai den makina egokiena bilatu eta aukeratuko da, piezaren neurriak, egingo diren mekanizazio eragiketak, eta makinaren ezaugarri teknikoak kontuan hartuz.

Laugarren ataza lortzeko erabilitako baliabideak: Bulegoko materiala (ordenagailua).

Laugarren ataza lortzeko erabilitako denbora: 3 egun.

Bostgarren ataza: Prozesu orriaren garapena. Iada hartuak egongo dira prozesu orria egiten hasi baino lehenago hartu beharreko erabakiak, beraz lan honen ataza garrantzitsuena egiten hasi gaitzke. Horretarako:

- Lehenik eta behin, lehenago erabaki diren eragiketak burutzeko behar diren erremintak aukeratu behar dira. Horretarako, Sandvik Coromant-ek eskaintzen dizkigun baliabideez lagunduko gara.
- Behin erremintak aukeratu direla, ebaketa parametro guztiak kalkulatu beharko dira (f_z , V_c , P , N , a_c , a_e eta denbora).
- Bi aurrepausu hauek eman ondoren, prozesu orria idatziko da. Horretarako, eragiketa bakoitzerako krokis bat marrazten da, eta azalpen labur bat ematen da.

Bostgarren ataza lortzeko erabilitako baliabideak: Bulegoko materiala (ordenagailua, kalkulagailua, inpresora), Sandvik Coromant-en web orriko CoroPlus ToolGuide gida, Sandvik Coromant-en erreminten katalogo fisikoa, EHU-k utzitako prozesu orriaren txantilo bat.

Bostgarren ataza lortzeko erabilitako denbora: 21 egun.

Seigarren ataza: Lanaren garapena. Azkenik, entregatuko den lan honen garapena egin behar da. Esan behar da ataza hau gainerakoak burutzen ari ziren bitartean poliki-poliki aurreratzen goazela. Hala ere, hurrengo egitekoetan banatzen dugu:


- Aurrena, aurkibidea garatu behar da. Hau egiteko Ingenieritza Eskolaren arautegian agertzen den ereduari oinarritzen gara, eta kasurako proposamen pertsonalizatua egiten da.
- Hau argi dagoenean, berezko lana idazten da. Atal batzuk aurretik garatuak izan dira eta lanean erantsi behar baino gehiagorik ez dago, baina beste batzuk idatzi beharko dira.
- Jarraian, lanaren emaitzak aztertzen dira eta ateratako ondorioak deskribatu. Era berean, aurrekontua kalkulatu da.

Seigarren ataza lortzeko erabilitako baliabideak: Bulegoko materiala (ordenagailua, kalkulagailua).

Seigarren ataza lortzeko erabilitako denbora: 20 egun.

7.5. GANTT-EN DIAGRAMA

Aurreko atalean azaldutako ataza guztiak, hurrengo Gantt-en diagraman agertzen dira era eskematikoan:



26. Irudia. Gantt-en diagrama.

Gantt-en diagrama hau garatzeko, aurretik atazen deskribapenean azaldu diren denborak hartu dira kontutan. Nahiz eta lehen aipatu den GrAL-a ikasleari martxoan aurkeztu zitzaioela, ikasturteko bestelako zereginak direla eta lanaren benetako garapena ez da orduan hasten. Gutxi gora beherako hasiera eguna Maiatzaren 10a izan zela kontsideratu da, eta batz-besteko bat eginez, egunean 4 ordu egin direla lan. Horrela, lana amaitua izan da Uztailaren 23an eta Uztailaren 24an entregatua.

8. IKUSPEGI EKONOMIKOA

8.1. AURREKONTUAREN DESKRIBAPENA

Edozein proiektutan ezinbestekoa da egingo diren gastuen estimazio bat aurrekontu moduan egitea. Izan ere, honek proiektua aurrera eramateko kapital nahikoa dagoen eta, era berean, proiektua errentagarria den adieraziko digu. Aurrekontu zehatz batek, proiektu osoan egingo diren gastuak estimatuko lituzke. Hala ere, lan honetan proiektuaren proposamena besterik ez da egiten, eta beraz ez dago gure esku proiektua aurrera eramatearen gastuak zeintzuk izango lirartekeen kalkulatzeari. Bai ordea, lan hau garatzeak ekarriko dituen gastuen aurrekontua egitea, eta beraz hori bera egingo da jarraian.

Aurrekontua hainbat ataletan banatuko da kalkulu zehatzagoa izan dadin: Barne-orduak, inbertsioak, gastuak, azpi-kontratazioak, gastu ez-zuzenak eta ezusteak. Ondoren, denak batera adieraziko dira amaierako balio bat adieraziz.

Barne-orduak

Horrela deitzen zaie proiektua burutzen duen erakundearen langileek proiektuaren gauzatzean emandako orduei. Hauen kalkulua egiteko, zenbatespena egin behar da atazaz-ataza eta langilez-langile. Horrela izanik, barne-orduei dagokien gastua langileak proiektuan emandako orduen eta ordu-tasaren arteko biderkadura izango da. Orduko-tasa hainbat faktoreren arabera kalkulatu da: Langilearen soldata gordina, enpresak ordaintzen duen gizarte segurantza eta kostu ez-zuzenen ehunekoa.

Gure kasuan, bi langile ditugula esan dezakegu: ikaslea eta lanaren zuzendaria, zeintzuk Ingeniari Juniorra eta Ingeniari Seniorra deituko ditugun, hurrenez-hurren.

Ingeniari Junior baten urteko soldata gordina 30.000€-koa estimatuko da, 1750 ordutarako. Honi gizarte segurantza (%4.7 gutxi gora behera) eta kostu ez-zuzenak (%4) gehituz, orduko tasa:

$$30.000+(30.000*0.047)+(30.000*0.04)= 32.610€$$

$$\text{Orduko tasa}=32.610€/1.750h=18.63$$

Ingeniari Senior batek, bere aldetik, urteko 60.000€-ko soldata gordina jasotzen duela onartzen dugu, 1750 ordutarako. Honi, aurreko langilearentzat egin berri bezala, gizarte segurantza (%4.7 gutxi gora behera) eta kostu ez-zuzenak (%4) gehituz, orduko tasa:

$$60.000+(60.000*0.047)+(60.000*0.04)=65.220€$$

$$\text{Orduko tasa} = 65.220€/1.750h=37.27$$

Orduko tasak ezagututa, barne-orduei dagokien gastua kalkulatu dezakegu. Horretarako atazen deskribapenean azaldutako lan-orduak ezarri zaizkio ingeniari Juniorrari, eta 20 ordu estimatu zaizkio irakasleari, gutxi-gora beherako kalkulua eginez. Balioa 10. Taulan agertzen da.

LANGILEA	LAN EGINDAKO ORDUAK (h)	ORDUKO TASA (€/h)	GASTUAK BARNE-ORDUENGATIK (€)
Ingeniari Juniorra	300	18,63	5589
Ingeniari Seniorra	20	37,27	745,4
TOTALA (€)			6334,4

10. Taula. Barne-orduen gastuak.

Inbertsioak

“Inbertsio” enpresak proiektua aurrera eramateko erabiltzen dituen aktibo finkoei deitzen zaie. Talde honetan sartuko ditugu makineria, ordenagailuak, lizentziak, baimenak, eta abar. Inbertsio hauen erabilpenak haien balio-galera ekartzen du, eta hori da kalkulatu dena atal honetan.

Kalkulua egiteko, hurrengo ekuazioa jarraituko dugu:

$$\frac{P_h * t_p}{t_e} \quad (18)$$

Non P_h = produktuaren hasierako balioa (€) den, t_p proiekturako erabilitako denbora (h) eta t_e produktuaren bizitza erabilgarria (h).

Hurrengo 11. Taulan adierazten dira egindako inbertsioak eta hauek suposatuko dituzten gastuen estimazioa:

AKTIBO FINKOA	HASIERAKO BALIOA (€)	BIZITZA ERABILGARRIA (h)	ERABILPEN DENBORA (h)	INBERTSIOA (€)
Ordenagailua	800	25000	250	8
Microsoft Office 365 HOGAR	99	8760	150	1,70
Microsoft Office Project 2013	417	8760	50	2,38
Calculadora	20	85000	10	0,002
TOTALA (€)				12,08

11. Taula. Inbertsioak.

Gastuak

Proiekturako erabili eta ondoren deuseztatzen diren produktuak eta gastu ez-materialak. Esaterako, bulegoko materiala, bidaiak-gastuak, material suntsikorra, prototipoak, probak, argia...

Lan honetarako, hurrengo gastuak hartu dira kontutan, zeintzuk 12. Taulan adierazten diren:

- Bulegoko materiala.
- Ikasleak Gasteiztik Bilbora egin izandako bidaiak.

GASTUAK	KOSTUA (€)
Bulegoko materiala	50
Gasteiz-Bilbo arteko bidaiak	120
TOTALA (€)	170

12. Taula. Gastuak.

Azpi-kontratazioak

Proiektua gauzatzeko beste erakunderen lanak beharrezkoak direnean, lan hauek ekartzen duten gastua kalkulatu da. Gure kasuan ez da azpikontrataziorik gauzatu, beraz atal honek ez du gasturik suposatuko eta ez da atal honetan adieraziko.

Kostu ez-zuzenak

Hauek proiektuetan esleitu ezinak izaten dira, proiektuetan parte hartzen ez duten izakiak izaten direlako. Normalean, urte oso batean egondako kostu ez-zuzenak eta zuzenak kalkulatu dira eta ehunekoa ateratzen da. Ehuneko hau %4a izango dela estimatu da, eta beraz, 13. Taulan agertzen den bezala adierazten da.

Kostu zuzenak (€)	6516.48
Kostu ez-zuzenen %	4%
TOTALA (€)	6777.14

13. Taula. Kostu ez-zuzenak.

Ezusteak

Atal hau behin aurrekontuaren ehunekoa izanda, batzuetan ipintzen den kopuruari dagokio, aurrekontuaren gehipenak ekar lezaken kaltea ekiditeko. Gure kasuan, esaterako, ezuste bezala kontsidera dezakegu ataza bat gaizki egiteagatik jasotako zuzenketak, edo proiektuaren atal baten galera. Hortaz, ezusteak gastu totalen %5-a izango direla onartuko dugu.

Kostu zuzenak + ez-zuzenak (€)	6777.14
Ezusteak	5%
TOTALA (€)	7115.99

14. Taula. Ezusteak.

Totala

Jarraian, kalkulaturako gastu guztiak biltzen dira 15. Taulan, aurrekontu totala ezarri.

	Kostua (€)
Barne-orduen gastua	6334,4
Inbertsioak	12,08
Gastuak	170
Azpikontratazioak	0
Kostu ez-zuzenak	260.66
Ezusteak	338.86
TOTALA	7116 €

15. Taula. Amaierako balioa.

9. ONDORIOAK

Behin proposamena egin dagoela eta kalkuluen emaitzak lortu ditugula, jarraian hauei buruzko eta lanaren garapenean ikusitakoari buruzko komentario batzuk egingo dira.

Lehenik eta behin, azpimarratuko dugu proiektuaren helburu nagusia lortu dela: Automoziozko birabarki baten prozesu-orria garatzea. Izan ere, hasierako forma batetik (kasu honetan forjak emandakoa), proposatutako eragiketa batzuen bitartez amaierako geometria bat eman diogu piezari.

Gainera, aurreko forma horri dagokionez, birabarkiaren mekanizazioarako aukerarik onena dela aurretik erabaki dugun arren, prozesu-orria garatu ondoren hartutako erabakia egiaztatu dezakegu, proposatutako mekanizazio eragiketa guztiak era eraginkorrean egitea ahalbidetzen baitigu. Era berean, esan genezake piezaren materialak kalkuluak baldintzatu dituela, baina kalkulaturako parametroak onargarriak direla ondorioztatzen da, eta gainera birabarkiaren funtzionamendurako ezaugarri egokiak dituen materiala dela azpimarratu behar da.

Bestalde, erabakitako makina ere egokia izango litzatekela proposatutako operazioak aurrera eramateko. Makinaren ezaugarri geometrikoek pieza onartzen dute, eta prozesu orrian aipatutako eragiketa guztiak bideratu ditzakegu makina honetan. Gainera, ez potentzia maximoa ez biraketa abiadura maximoa ez da eragiketa batean ere gainditzen.

Hala eta guztiz ere, prozesu hau ikasketa eta proposamen teoriko bat besterik ez da birabarkiaren mekanizazioaren inguruan, eta praktikara eramatea ezinezkotzat hartzen da. Enpresa batek prozesu hau edo antzeko bat aurrera eramatea erabakiko balu, proiektuaren errentagarritasuna kalkulatu beharko luke, baina ez da lan honen eginbearra, ordea, hau kalkulatzeko, gure eskumenetik kanpo geratzen baitzaigu. Beraz, praktikara eramatea nahi izango balitz ikasketa sakonagoa egin beharko litzateke.

Gainera, normalean automozioko piezak fabrikatzen dituen halako enpresa batek, bezeroaren nahien arabera diseinatzen du fabrikazio prozesua, beraz hau ere kontuan hartzeko faktore bat izango litzateke.

10. ERREFERENTZIAK ETA BIBLIOGRAFIA

ERREFERENTZIAK

- ¹ **ACICAE**-ren web orritik eratorritako datuak, Euskadiko automozio erakundea.
<https://www.acicae.es/>
- ² **ACICAE**-ren web orritik eratorritako datuak, Euskadiko automozio erakundea.
<https://www.acicae.es/>
- ³ **Observatorio Industrial del Sector del Metal**. *ESTUDIO DE COMPETITIVIDAD DEL SECTOR INDUSTRIAL DEL MECANIZADO EN ESPAÑA (PROYECTO AVIVA)*. (2012). pp-20-26.
Eskuragarri:
<http://www.mincotur.gob.es/industria/observatorios/SectorMetal/Actividades/2011/C ONFEMETAL/Estudio de Competitividad del Sector Industrial del Mecanizado en Espa %C3%B1a Proyecto AVIVA.pdf> -n.
- ⁴ **BaseLogica.com**. *Componentes del motor: Órganos del movimiento alternativo*. (online).
Eskuragarri: <https://www.baselogica.com/componentes-del-motor-organos-del-movimiento-alternativo/> -n.
- ⁵ **Fazermotos.com** web-orritik eskuratutako argazkia. Eskuragarri:
<http://www.fazermotos.com/Rectificacion-de-ciguenales-de-motos.htm> -n.
- ⁶ **Guardiola, F. (UPM)**. *Desarrollo y suministro de un cigüeñal de forja para el mercado del recambio en el sector de la automoción*. Gradu Amaierako Lanetik eskuratutako argazkia.
- ⁷ **IndherPro** enpresaren web-orritik eskuratutako argazkia. Eskuragarri:
<http://indherpro.com.mx/project/torneado/> -n.
- ⁸ **IMH-Fabrikazioaren zentro aurreratua**-ren web-orritik eskuratutako argazkia.
Eskuragarri: <http://www.imh.eus/es/comunicacion/dokumentazio-irekia/manuales/introduccion-a-los-procesos-de-fabricacion/conformacion-por-mecanizado/mecanizado-por-arranque-de-viruta/fresado> -n.
- ⁹ UPV/EHU -ko **Teknologia Mekanikoa** ikasgaiko apunteetatik ateratako argazkiak. (7,8,9,10,11,12 eta 13 Irudiak iturri beretik hartu dira.)
- ¹⁰ **MAG** enpresaren web-orritik eskuratutako argazkia. Eskuragarri: <http://www.mag-ias.com/web/en/produkte/produktseite.php>
- ¹¹ 3. Eranskina. *Forjako plano* -ren xehetasuna.
- ¹² Hau zein 25. Irudiak **WFL M60 MillTurn Complete Crankshaft Machining - MARTECH Machinery, NJ - USA** bideotik ateratako argazkiak.
<https://www.youtube.com/watch?v=81UjjSH2iFw>

BIBLIOGRAFIA

Valladares, S. *Cigüeñal, Qué Es, Cómo Funciona, Partes, Ubicación y Por Qué Falla.* (online). Mundo del motor. Eskuragai <https://www.mundodelmotor.net/ciguenal/> -n.

Arias Paz, M. (2004). *Manual de automóviles, 1977-1978.* 55. edizioa. Madrid: Dossat. pp. 53-81.

Ikastaroak.ulhi.net. *Procesos de mecanizado por arranque de viruta.* (online) Eskuragai: https://ikastaroak.ulhi.net/edu/es/PPFM/DPMC/M/DPMC01/es_PPFM_DPMC01_Contentidos/website_index.html -n.

Guardiola, F. *Desarrollo y suministro de un cigüeñal de forja para el mercado del recambio en el sector de la automoción.* Trabajo de Fin de Grado. Universidad Politécnica de Madrid.

TLV-Compañía Especialista en Vapor. *Fundición VS. Forjado?.* (online). Eskuragarri: <https://www.tlv.com/global/LA/steam-theory/casting-and-forging.html> -n.

WFL. *M40/M40-G/M50 Clamp once-machine complete.* (pdf) Eskuragarri: <https://www.wfl.at/es> -n.

Ingenieritza Mekaniko Saila – UPV/EHU. *Teknologia Mekanikoa-Mekanizazioa.* Gelako apunteak. 2017-2018 Ikasturtea

Ikastaroak.ulhi.net. *3.1.-Máquinas.* (online) Eskuragarri: https://ikastaroak.ulhi.net/edu/es/PPFM/DPMC/M/DPMC01/es_PPFM_DPMC01_Contentidos/website_31_mquinas.html -n.

Saarstahl. *Material specification sheet – 37Cr4 / 37CrS4.*

MAG. *Crankshaft Machining-Our expertise.* (pdf). Eskuragarri: <http://www.mag-ias.com/web/en/produkte/produktseite.php> -n

Sandvik Coromant. *Catálogo Principal.* pp D2-D181.

Sandvik.coromant.com. *CoroPlus ToolGuide.* (online). Eskuragarri: <https://www.sandvik.coromant.com/es-es/products/Pages/toolguide.aspx> -n.

Sandvik.coromant.com. *Grupos de materiales de pieza.* (online). Eskuragarri: <https://www.sandvik.coromant.com/es-es/knowledge/materials/workpiece-materials/workpiece-material-groups/pages/default.aspx> -n.

Deutsches Institut für Normung. *DIN EN-10083-3. Steels for quenching and tempering-Part 3.* (2007).